

# **BEASAINGO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN** **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN** **ALDAKETA**

## **SARRERA**

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, Beasaingo lurzoruaren eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

## **XEDEA**

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

- 1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:
  - **Beasaingo 18. Area Hiritzarrari eta S.1 Alorrari dagokien Hiri Antolaketako Arauen aldaketa (2004ko uztailaren 20an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartua).**
  - **Beasaingo Ittola S.6 alorrari dagokion Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa (2004ko irailaren 7an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartua).**

## **ALDAKETAK**

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

**1.- Hiri-lurraren eta 424, 601 eta 853 zona katastralen mugapenak aldatzen dira.**

### **I. ERANSKINA**

**Hirilurraren mugatze plano.**

### **II. ERANSKINA**

**Zona katastralen plano.**